

# BESTELAKO XEDAPENAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

## 3523

*EBAZPENA, 2021eko ekainaren 7koa, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez iragartzen baita honako hauek ireki direla: Plan Hidrologikoa berrikusteko proiektuaren proposamenaren kontsulta publikoko aldia; Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana berrikusteko proiektuaren informazio publikoko aldia; Alerta eta lehorte egoeretan jarduteko plan bereziaren proposamenarena, eta Ingurumen-azterketa estrategikoarena, aipatutako dokumentuei dagozkienez, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoari lotuta, EAEko Barne Arroen eremuan.*

Plangintza Hidrologikoaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 6ko 907/2007 Errege Dekretuaren 74. artikuluan eta Uholde Arriskuak Ebaluatu eta Kudeatzeko uztailaren 9ko 903/2010 Errege Dekretuaren 13.3 eta 14.3 artikuluetan xedatutakoaren arabera, Uraren Euskal Agentziak iragarri du honako hauek ireki direla: «Plan Hidrologikoa berrikusteko proiektuaren proposamena» dokumentuaren sei hileko kontsulta publikoko aldia eta «Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana Berrikusteko Proiektuaren» hiru hileko informazio publikoko aldia, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren 2022-2027 plangintza-zikloari dagozkionak, EAEko Barne Arroen eremuan.

Bestalde, Agentziak iragarri du Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoari dagokion «Alerta eta lehorte egoeretan jarduteko plan bereziaren proposamenaren» sei hileko informazio publikoko aldia irekiko dela, Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Arroen eremuan, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 7.2 artikularekin bat etorritik (27/2006 Legea, uztailaren 18koa, ingurumen gaitan informazioa eskuratu, publikoki parte hartu eta auzitegitara joateko eskubideak arautzen dituena).

Era berean, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan eta planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera, hasiera ematen zaio aipatutako hiru dokumentuei buruzko «ingurumen-azterketa estrategikoaren» sei hileko informazio publikoari.

Horretarako, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, dokumentazioa Uraren Euskal Agentziaren orrialde elektronikoan kontsultatu ahalko da: [www.uragentzia.euskadi.eus](http://www.uragentzia.euskadi.eus).

Ezarritako epeen barruan, ekarpenak egin ahal izango dira, baita komenigarritzat jotzen diren oharra eta iradokizunak ere, honako posta elektronikoaren bidez:

ParticipacionPlanHidrologico@uragentzia.eus

pgri@uragentzia.eus

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 7a.

Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia,  
ANTONIO AIZ SALAZAR.